# kitto!

872 zkia.
2013-XII-30
...eta

URTEKARIA barruan
2013 hilez hile




EUKi
ARTEKARITZA

Toribio Etxebarria, 1 - behea
943 20 42 99

AUTOAREN ASEGURUA
preziorik onenean



# ERREHABILITAZIO FUNTZIONALAREN ZENTRUA

OSAKIDETZA - MUTUA - ASEGURUA ETA ABARREKIN KONTZERTATUA

## CRF AMOSTEGI

* *Fisioterapia*
* *Min-Unitatea*
* *Kirol medikuntza*
* *Osteopatia*
* *Perineologia*
* *Ama izateko prestakuntza*





R.P.S. 28/07

Muzategi 2 behea (EIBAR) Tfnoa eta Faxa. 943 20 34 46

E-maila: info@crf-amostegui.com – www.crf-amostegui.com




protesiak

inplanteak

ortodontzia

periodontzia

endodontzia

PADI

Hortzak zuritzeko tratamendua

clinicacalbeton@euskaltel.net

**calbetón**
hagin klinika

**F. Calbeton, 6 - 1. A** Tel. / Faxa: **943 03 33 03**

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

KA / KIA.- Ez. *"-Gaur sardaurako bihar diran sagar danak batuko doguz, ala? -Ka! ezingo dogu dana amaittu".*
KABALLERITUEN EGUNA.- Eguena, osteguna esateko.
KABIDU EZIÑIK.- Oso harrotuta. *"Loterixan lehenengo premixua atara dabenetik kabidu eziñik dabil".*

## ASTEAN ESANAK

"Feminismo batzuk arrazakerian eta islamofobian erortzen dira. Gure gizartean islama bakarrik patriarkal gisa aurkezten digutenez, irakurketa sinplistak dituzte eta, horrez gain, biktimizatzaile bihurtzen dira, hango emakumeak salbatzera deituz."
(Itzea Goikolea, arabiar kulturan aditua)

"Sasoi batean seme-alaba bakarrak gutxiengoa ziren; gainera, gutxiengo estigmatizatua. Orain, bestalde, laster esango dugu familia ugarietan sortutako umeak oldarkorrak direla, gurasoen arreta lortzeko lehian jardutera ohitu direlako"
(Arantza Urretabizkaia, idazlea)

"Zuk ematen dituzu 25 hitzaldi doan, eta jendeak pentsatzen du merkekoa zarela. Irabazi duzu ez dakit zer sari eta hurrengo egunean zaude hitzaldia ematen doan, eta nire esperientzia da hori kalterako dela. Ez zait gustatzen, baina onartzen dut"
(Bernardo Atxaga, idazlea)

"Eibarren, normalean, bigarren itzulian behera egiten da. Hori gertatu zitzaigun Amorrorturi eta niri. Guri gertatu zitzaigun azken 8 partidetara 1. Mailara igotzeko aukerekin heldu, eta partida bakarra irabazi. Igotzeko presioa sortu zen eta ezin asmatu hori eramaten"
(Manix Mandiola, entrenatzaile-ohia)

# eskutitzak

### SASOI BELTZA DATOR ...ETA KITTO!-RENTZAKO

2013ko Batzar Nagusian azpimarratu genuen aurtengo diru kontuak gaur arte izan ditugun zailenak izango zirela. Krisiak bai publizitatean bai enpresek egindako lan berezietan (diseinu, itzulpengintza eta abar) eragin zuzena edukiko zuela aurreikusten zen. Urtea amaitzear, enpresetan dagoen krisia eta horiek eskatutako diseinu eta itzulpegintza lanen jaitsiera handia izan da, ez horrenbeste publizitatearena, eta azkeneko hori poztekoa izan da. Baina irailean izan genuen aurtengo albiste ekonomikorik txarrena: ...eta kitto! Euskara Elkarteak 18.000 euro gutxiago jasoko ditu Eusko Jaurlaritzatik, eta horrek espero ez genituen diru-galerak ekarriko dizkigu. Datozen hilabeteak oso beltzak izango dira, hainbat proiektu, Berbetan Mintzapraktika egitasmoa adibidez, eutsiezinak direlako gaur egun.

Guzti horren aurrean, eibartarrek azkeneko hiru hilabeteetan erakutsitako laguntza azpimarratu behar dugu. Gida Komertzialean lerro normala ipintzearren kopuru sinboliko bat kobratzera behartu gaitu egoerak eta erantzuna oso ona izan da komertzianteen aldetik. Eta otarraren rifen salmenta handia izan da eta 8.000ko kopurua gainditzea lortu dugu.

Datozen asteetan izango dugu Eibarko Udalarekin urteko aurrekontuari buruzko lehenengo bilera eta itxaropena izan beharra dugu. Gure elkarteak bizirautea garrantzitsua delakoan gaude eta hori lortzeko gure esku dagoen guztia egingo dugu. Baina ezin gara itsutu eta onartu beharra dugu urte berriak laino beltzak dakarzkiola gure elkarteari..

***...eta kitto! Euskara Elkarteko Zuzendaritza Batzordea***

**Hurrengo alea URTARRILAREN 10-EAN kaleratuko dugu, datorren asteko barixakuan.**
***Ondo pasa bitartean***


...eta kitto! Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartea. 20600 Eibar
**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
**Astekariaren E-MAILak:** erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com / publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.
**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Periko Iriondo
**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** *8.100 ale.* **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679
*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

## Lourdes Pereak irabazi dau ...eta kitto!-ko otarra

**Argazkixan, erdixan ikusten dozuen Lourdes Perearendako izan da …eta kitto! Euskara Elkarteak hillaren 18xan zozketatutako otarra,** berak zekan-eta 1.140 zenbaki sariduna. Irabazlia hillaren 20xan egon zan El Corte Inglesian, sarixa emon detsan txartela entregatzen. 2.000 euroko balixua dakan otarrak produktu zerrenda luziak osatzen ebanez, dana etxera eruan ahal izateko ibilgaillu haundixa bihar eban eta, horregaittik, otarraren billa hurrengo egunian juan zan. Zorionak eta on egin!



*Lourdes Perea irabazlia, Joana Fernandez (El Corte Ingles) eta Koldo Mitxelenaren (...eta kitto!) artian.* SILBIA HERNANDEZ



## Merkatu Plazan sarittutakuak

**Merkatu Plazako dendarixak bezeruen artian Gabonetako 13 otar zozketatu zittuan hillaren 20xan.** Saridunak hónetxek izan dira: Lorea (Fotero okindegixa), Nieves (Rodriguez guardasolak eta labanak), Angeles (Angela ozpiñetakuak), Esther Hermosilla (Prieto izoztutakuak), Pilar (Maribel-Juli izoztutakuak), Jone Alcelay (Vanesa-Gloria arraindegixa), Mª Jose (Maite arraindegixa), Catali, Arrate, Mari Paz (Gumuzio frutak), Berta (Soraya arraindegixa), Ana (Rezola harategixa) eta Fernando Tinoco (Iturri ardauak).

## Alfa konkursotik urten da

**Abenduaren 23an Alfa Taldeko zuzendaritzak gehixenbat bankuak osatzen daben hartzekodunekin** konbenixua siñatu eban, Donostiako Merkatal epaitegixan. Konkursotik urtetzeko siñatu barri daben konbenixua bihargiñeri *"zelako karua urten jakuen salatzeko"* alkarretaratzia egiñ eben LAB sindikatuko delegauak; *"Alfa taldian 100 lanpostu baiño gehixago suntsitu dira, bihargiñeri soldatia bajau detse eta lan baldintzak okerrera egin dabe, bestiak beste kaleratziak eta gero lan berbera egitten bihargin subkontratauak ipiñi dittuelako soldata miserable bat ordainduta".*




*Zuzendaritzak siñatutako akordixua dala-eta, protesta egiñ eben.*



*Gallastegi Pedro Mari Goikoetxeari erantzuten.* SILBIA HERNANDEZ

## Miguel Gallastegiri buruzko liburuaren aurkezpena

**Hillaren 23an presentau eben Coliseuan Miguel Gallastegiri buruz Luis Alberto Aranberri "Amatiñok" idatzittako liburua.** Pedro Mari Goikoetxea kazetarixak gidatu eban ekitaldixak jendetza batu eban eta mahaixan, liburuaren egilliarekin, Miguel de los Toyos alkatiarekin eta Carmen Larrañaga Ego Ibarra batzordeburuarekin batera febreruan 96 urte beteko dittuan Gallastegi sasoi betian ikusteko aukeria euki genduan. "Miguel Gallastegui, ni pelotari" ETBk ekoitzi daben dokumentalaren zati bat be emon eben.


LEIRE ITURBE

# Dendarixen alkartekuen otarrak

**Eibarko dendarixen alkartiak hillaren 21ian 40 otar banatu zetsatzen** alkartiaren txartelakin pagau daben bezeruen artian egindako zozketan irabazi dabeneri.

## autuan



### TXALTXA ZELAIKO PARKIA

**Txaltxa Zelaiko parkia estaltzeko biharrak amaittu dittue eta, bertako ziburu-zaura eta bestelakuak ipiñitta daguazenez, parkia erabiltzeko moduan daguala emon dabe aditzera alkatetzatik.**



*Artisau azokia aprobetxatuta, desfilia be egiñ eben.*
LEIRE ITURBE

# Eibart, urtarrillaren 5era arte

**Eibarko Bizikleta Plazan martxan daguan Eibart artisau azokia hillaren 5era arte** egongo da zabalik, goizez 11.00etatik 14.00etara eta arratsaldez 17.00etatik 21.00etara. Bertan parte hartzen dihardun artisauak Anemona Studioa, Eskulan, Marta Irusta, 1964, Ana Orozko, Maite Arriaga, Iratxe Unanue, Arrate Espilla, Jone Perales, Nieves Maidagan eta Aittu dira. Bestalde, urtarrillaren 3, 4, eta 5ian DJ saiuak egingo dittue 19.00etan.







## Abontzatomas solidarixuak

**Hillaren 22xan Abontzako Itturrixa alkartekuak Abontzatomasak ospatu** zittuen Egigurentarreneko parkian. Betiko lez, umiendako jokuak eta txistorra pintxuak izan ziran protagonista nagusixak. Batutako dirua Elikagaixen Bankuari emongo detse.



*Txistorra pintxuak ez ziran falta izan.* LEIRE ITURBE



LEIRE ITURBE




## Olentzero eta Mari Domingi bisitan

**Zona 10 alkartiak antolatuta, hillaren 20xan Olentzero eta Mari Domingi Estaziño-Ibarkurutze inguruan** bisitan egon ziran eta umiendako taillarrak be eskindu zittuen. Horrekin batera, alkarteko dendarixek-eta emondako oparixekin tonbolia antolatu eben. Horrekin batera, eta Aldatzeko boluntarixuen laguntasunari esker, Ibarkurutze pareko lokalian (Don Piso eguan tokixan) jatekuak eta jostailluak batzen jardungo dabe urtarrillaren 5era arte Caritas eta Elikagaixen Bankuari eta Emaus-i emoteko. Bestalde, bixar 10.30xetatik 15.30xetara bigarren eskuko azokia egongo da martxan Estaziñuan, denetarik eskinduko daben 100dik gora postutan.



## Olentzero Untzagan geratu zan

**Hillaren 24an eurixa egiñ ebala-eta, azkenian Olentzero ez zan kalejiran ibilli.** Halanda be, udaletxeko arkupietan kantuan ibilli ziran eta patixuan umieri harreria egin zetsen, txokolatezko Olentzero bana oparittuta.








*Eibar Triatloi Taldekuak izango dira erregiak aurten.* Leire Iturbe

## Errege Kabalgatia urtarrillaren 5ian

**Urtero lez, Errege Kabalgatia urtarrillaren 5ian egingo da. Aurretik, 16.30xetan Ipurua Gimnasia Erritmika,** Ipurua dantza garaikidia eta Eibarko Balleta taldietako ikasliak erakustaldixa eskinduko dabe Ipurua kiroldegixan (atiak 16.00etan zabalduko dittue). Kabalgatia 19.00etan Untzagan hasiko da eta, Urkizuraiño jaitsi eta gero, atzera be Untzagara igoko da, 20.00etan udaletxian umieri harreria egitteko. Kabalgatan, Eibar Triatloi taldeko erregiekin batera Lambretta Klubekuak, Cielito Musika Bandiak eta antortxak eruango dittuen 50 bat umek hartuko dabe parte.

## autuan

### MERKADILLORIK EZ

**Urtarrillaren 1ian Urtebarri jaixa dala-eta, ez da eguazteneko azokarik egingo ez Urkizun ez Errebalen. Holan emon dabe aditzera Zerbitzu batzordekuak.**

### EAJ-KUEN ESKER ONA

**Eibarko EAJ-k esker ona azaldu nahi detse, Batzokixan janarixa eta jostailluak biltzen jardun dabela-eta, lagundu daben guztieri eta, *"egindako ahalegiñak emaitza oso ona"* izan dabela azpimarratu dabe.**

## Sostoaren Gabon kontzertua

**Urtero lez, San Andres elizan Gabon kantak eskindu zittuan** Sostoa abesbatzak hillaren 22xan. Aurten, gaiñera, pantalla bat ipiñi eben, jendiak kontzertua hobeto segidu ahal izateko. Bestalde, hillaren 22xan kontzertua amaittu eta gero egindako abesbatzaren gabon otarraren zozketian, 0734 zenbakixa (kolore horixa) urten zan. Erreserba moduan geratu da 6.246 numerua (naranja kolorekua).



*Hillaren 22xan eskindu eben Gabon kantak Sostoakuak.* Leire Iturbe



*Alexander Arriola injeniero eibartarrak hillebete batzuk daroiaz SPRI-ko zuzendari karguan. Aurretik, zazpi urte emon dittu Txinan enpresa birendako biharrian eta oiñ Euskadiko enpreseri aurrera egitten laguntzera bideratzen dau bere eguneroko jarduna. Etorkizunari modu positibuan begiratzen detsa.*



**ALEXANDER ARRIOLA** -SPRI-ko zuzendarixa-

# "Enpresa sorkuntza inportantia da, baina betikuari eutsi bihar detsagu"

***- Martxuaz geroztik SPRI-ko zuzendarixa zara. Zelako esperientzixa izaten dihardu?***

Sektore pribatutik publikora saltua emon dot. Aurretik Txinan, Shangain eta Pekiñen zazpi urte emon dittut biharrian CiE Automotive eta Gamesa enpresendako eta, SPRI-ko zuzendarixa izateko aukeria sortu zanian, enpresa gizona naizen aldetik ezin neban ezetzik esan, pozik dihardut.

***- Industria Sustatzeko eta Eraldatzeko Baltzua da SPRI, baiña zeintzuk dira bere funziño nagusiñak? Zer egitten da bertan?***

SPRI taldia Eusko Jaurlaritzako enpresa garapenerako agentzia publikua da eta zeregin nagusiña euskal enpreseri laguntasuna eta bultzadia emotia da. Horretarako Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailleko aurrekontuaren %75 kudeatzen dau. Arlo diferentietan jarduten dogu: internazionalizaziñua, enpresa sorkuntza, teknologixia eta barrikuntza, ekimenak eta proiektu estrategikuak, azpiegiturak (enpresendako lurra-eta SPRILUR bittartez, parke teknologikuak…) eta finanziaziñuak (laguntasunak…) dira inportantienak. Normalian diru-laguntasunak kudeatzen dittugu, enpresa barrixak sortzeko, teknologixa arluan barritzeko, enpresendako finanziaziñorako…

***- Zeregiñen artian inportantienetakua enpresen premiñeri erantzutia da. Zer eskatzen dabe gehixen?***

Batez be diru-laguntzak eta arlo teknologikua lantzeko laguntasunak eskatzen deskuez.

***- Eta eskatzen dittuenak bat datoz benetan dittuen premiñekin?***

Gaur egunian baietz pentsatzen dot, benetan bihar dabena eskatzen dabe. Bankuak gero eta gitxiago laguntzen dabenez gero eta gehixago joten dabe guregana. Gobernuak ezin dau beti danian lagundu, baiña ahal dabenetan behintzat laguntzen ahalegintzen gara.

***- Oin dala gitixi egindako beste alkarrizketa batian "krisi" berbia gustatzen ez jatzula esan dozu. Zein da horren gaiñeko zure iritzi pertsonal hori?***

Neretako krisixan egotiak esan nahi dau egoera txarrian zaguazela eta bertatik zelan urten ez dakizula, baiña gobernu honek badaki egoera honetatik zelan urten eta, gañera, horretarako erreminttak be badittu. Proiekto onak badagoz, eta egoeria nahiko eskasa izanda be, errekuperaziñorako lehen pausuak emoten hasi gara. Euskadin enpresa gehixenak, %70 eta %80 bittartian PYME-ak dira eta proiekto onak, barriz, enpresa haundixak dittue, baiña enpresa haundixak ertaiñ eta txikixendako traktoriak izango dira.

***- Internazionalizaziñua aittatu dozu lehen, baiña ez dozu pentsatzen bihargiñ askorendako berba hori mehatxuaren sinonimua dala?***

Jendia ikuspegixa aldatzen hasi bihar da, internazionalizaziñua mehatxua baiño aukera moduan ikusten hasi bihar da. Sasoi barri batian gaoz. Enpresa batek beste herrialde batian konponente merkiaguak egittia lortzen badau, horren kontra ezin leike konpetidu. Ostera, I+D eta holakuak produktueri balixo erantsixa emoten detse.

***- Txinari be beldur haundixa detsagu, laster merkatu osua euren esku egongo ei da. Zuk zazpi urte pasau dozuz han biharrian, zer pentsatzen dozu?***

Txinuak oin dala hamarkada batzuk Euskadi eguan moduan dagoz oin momentuan. Eboluziñua emongo da, gaur egunian Txina ez da hain merkia eta sosiguz-sosiguz horren merkia izatiak emoten zetsan indar hori galtzen juango da.

***- Eta etxera begira ipiñitta, zelan ikusten dozu Eibarko industria?***

Eibartarrak uste dogu gure aitxitxak egindakuarekin dana eginda dakagula, euren errentan bizi gara. Mentalidadia aldatu bihar dogu aurrera egitteko.

***- Egoeriak derrigortuta-edo, azken aldixan proiektu eta ideia barri mordua dihardue sortzen. Etorkizuna hortik etorriko dala pentsatzen dozu?***

Enpresa barrixak sortzia ondo dago, atzian ideia on bat baldin badago. Proiektu senduak bihar dira eta, ahal dala, lanpostuak sortzen dittuanak; izan be, holako proiektu asko autoenpleguari begira sortzen dira. Enpresa sorkuntza inportantia da, baiña betikuari eutsi bihar detsagu, hórretxek diralako gure ekonomixaren oiñarrixa.

VITORIA GASTEIZ! green capital

# ZATOZ GASTEIZA, EGUBERRIEN GOXOTASUNAZ GOZATZERA!




**IZOTZ-PISTA ETA IZOTZ-TXIRRISTA FLORIDAKO JAIOTZA IKUSGARRIA MUSIKA KALEAN ETA HIRIKO DENDA ONENAK EROSKETAK EGITEKO HAUR TAILER LUDIKOAK GAINERA, URTARRILAREN 3AN ETA 4AN DENDAK EGUERDIETAN IREKITA EGONGO DIRA. PARKING ZERBITZUA IRADIER ARENAN DOAN**


argazkia: Daniel Llano


argazkia: Iñigo Montoya


argazkia: Daniel Llano

## Zer da Gasteiz On?

Gasteizko hiriguneko denden elkarte bat da. Denetariko dendak –arropa, jostailuak...–, tabernak, jatetxeak, gure hiriaren erdialdean. Elkartearen barruan ze negozio dauden jakiteko, webgunean kontsultatu: www.gasteizon.com.

**INFORMAZIO GUNEAK**
**NON DAUDE INFORMAZIO GUNEAK?**

Arka plaza
San Frantzisko kalea
Ricardo Buesa kalea

## Gasteiz On-en erosteak oparia dakar

Gasteiz ONeko dendetan 20 euro baino gehiagoko erosketak eginda, eta Informazio Guneren baten tiketak aurkeztuta, opari hauetako bat jasoko duzu:

- Izotz-pistarako sarrerak
- Paketeria iraunkorra
- Kontsigna zerbitzua

**ORDUTEGIA**

12:00- 14:00 / 18:00 - 21:00
24an eta 31n, 20:00ak arte

## Doan!

**3 EUROKO BONUA PARKINGEAN, KUPOI HAU AURKEZTUTA**

Kupoi hau eta zure aparkamendu-tiketa Informazio Guneren baten aurkeztuta, doan lortuko duzu hiru euroko bonu bat Amarikako, Katedraleko, Juan Aialako eta Europako parking publikoetan erabiltzeko.

Antolatzailea

gasteiz on

Babeslea

Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

***Eibartik kanpo ere gertatu direnen artean badira hainbat gauza eta pertsona aipagarri. Hona hemen horietako batzuk***


Nelson Mandela


Hugo Chavez


**SIRIA**: Siriako Ejerzito Askeko borrokalariak frankotiratzaileek tirokatuta


**TASMANIA**: Paradisis Marti australiarra olatua surfeatzen Pedra Brancan


**BOSTON**: Hiru hildako laga zituen maratoian izandako leherketak


**SRI LANKA**: Monje budista bat bere buruari sua ematen


**BAHREIN**: Neskatoa herrialdean izandako hilldakoen aldeko hiletetan


**INDIA**: Gazte bat Ganges ibaiak sortutako uholdetik ihesean









**EEBB**: Code Pink mugimendukoak protestan John Kerryren idazkariaren aurrean



**SINGAPUR**: Gorputz-adarrik gabe jaiotako hizlaria marrazoen artean



**INDIA**: Umea jolasten Allahabad ibai lehor baten hondotik



**ERRUSIA**: Gay bati erasoa Moskun homosexualen aldeko manifestazio batean




**ESTRASBURGO**: Lizia Ronzulli italiarra bozketan Europar Parlamentuan



**LANPEDUSA**: Hildako ehundaka etorkinen hilkutxak aeroportuan

Urtia betiko lez **Urkora** igota hasi eben askok. Hillaren 5ian **Errege Kabalgatiak** herriko kaliak ziharkatu zittuan Ekialdetik etorrittako Hiru Erregiekin. Eta **Gureak-eko** bihargiñak ederto pasau eben Auzokuak gonbidauta euki eben bazkarixan. Aste bakarrian hiru greba egun egin zittuen **Alfako** bihargiñak, zuzendaritzak planteatzen zittuan kaleratzien kontra. Urtiaren hasierarekin batera hasi ziran martxa betian Debabarrenako **Kaleratziak Stop** Desahucios plataformakuak. **Lagun Taldeak** dantza eta musika ikuskizuna prestatu eban, Hezkuntza Esparruan saio bikoitzian taularatzeko. San Sebastian egunaren harira **Danborradaren Kontzertua** eskindu eben Musika eta Txistulari Bandak, barrilak lagunduta. Armerixa Eskoliak ospakizuna agurtzeko ekitaldixan **Eskuadra Zaharra** museua presentau eban. Eta Gipuzkoako odol-emotaillien alkartekuak **odol-etaratziak** anbulategixan egitten hasi ziran.



LagunTaldearen ikuskizun koloretsua bitan eskindu zeben



**JESUS GUTIERREZ**
**“Trenak aukera eman zigun burua mundura ateratzeko”**

**DATUA**
**105 kexa eta proposamen jaso eta tramitatzen dituzte udalean hilero batez beste**



Napoka Iriaren kontzertua Coliseoan



Txotxa Iruki sagardotegixan





**BODEGA VINAGRE**
Pintxoak
Razioak
Ogitartekoak
Egunero
07.00etatik zabalik
Asteburuetan
10.00etatik aurrera

ITZULPEN
ERA GUZTIETAKO TESTUAK ITZULTZEN DITUGU,
euskaratik gaztelerara,
gazteleratik euskarara,
eta ingelesetik euskarara.
ZERBITZUA
elkartea@etakitto.com



San Blas opillen bedeinkapenaren ohitturia ez da galdu



Aratostietan koko-jantzixak nagusi



Antzerki Jardunaldixen 36. edizińua

Jaixekin ekin jakon otsaillari gurian: hillaren 2xan **koko-eskia eta koko-dantzak** eskindu zittuen Mandiola eta Gorosta auzuetan. Hurrengo egunian **San Blas** opillak bedeinkatu zittuen herriko elizetan. Eta **Santa Ageda** goguan, santaeskian urten eben herriko hainbat taldek, tartian Kiñarra eta Arrate auzuetako basarrittar gaztiak eta Sostoa abesbatzak. San Balentin egunaren harira Zona 10 alkartekuak **Maitasunaren Hamabostaldixa** ipiñi eben martxan. "Newtonen sagarretik esku-pilota kuantikora. Berrikuntza eta zientzia zabaltzen", **Juan Luis Ibarluzearen** liburua argitaratu eban Ego Ibarrak. **Aratosteak 2013** kartel lehiaketia Bartzelonako Conxita Honoratok irabazi eban. Otsaillian urten eban **Sahararen aldeko** IX. Euskal Karabania hango errefuxiatuendako laguntasunarekin. **Mogel Isasi BHI-k Eskola Jasangarrixaren** banderia jaso eban.



**MARTA QUINTIN**

**"Nueva Yorketik Eibarrerako saltoa naturala izan da"**

**DATUA**

**7.273 operazio egin ziren iaz Mendaroko Ospitalean. 80.000 biztanle hartzen ditu, 116 ohekin**




# IÑAKI ALTUNA ORMAETXEA "MALATU"

**I. urteurrena** *(2012-XII-30)*

**Zu sortu zinen enbor beretik sortuko dira besteak**

*Inoiz ez zaitugu ahaztuko: beti gure bihotzean.*

ROSA, ZIGOR ETA ION

Otsaillian hasittako 36. **Antzerki Jardunaldixak** agurtu genduazen. PSE-EE eta PP-ren botuekin azken urtiotako **aurrekonturik** txikixena, 28.893.309 eurokua onartu eben udalian. **Debabarreneko I. Lanbide Heziketa** abiatu zan Untzagan. **Martxuaren 8xaren** harira, flashmob-a egiñ eben. **Italiako zirkua** aillegau jakun. **Bertsuak Arrate Kultur Elkartian** protagonista izan ziran. Eta **pianojole gaztiak** hiru ohorezko aipamenekin bueltau ziran Andoaindik. La Salle ikastetxekuak **kontzertu solidarixua** eskindu eben. **Ospittala egittiaren aldeko** siñadurak batziari ekin zetsen. Urkizun **landare azokia** egin zan. **Mugi txartela** ezagutzera emoteko jardunaldixa hartu eban gure herrixak. **Ekingune** ekintzaillien alkartia aurkeztu eben. **Udaberri jaixa** antolatu eben Abontzako Itturrixa alkartekuak Abontzan. Eta **Dolmenen Ibilbidia** gehittu zetsen eskualdeko turismo eskintzari.



**ASIER SARASUA**
**"Bildutako ahozko ondarea denon esku laga gura dugu"**

**DATUA**
%100,84 zegoen beteta Aixola urtegia, guztira 2 milioi eta 726 mila metro kubikorekin



Korrikaren 18. edizińua martxuaren 20xan pasau zan Eibartik


Etxeberriaren bilduma arrakastatsua


Armerixako Ikasle Ohien batzarra

iTURRi
ARDOAK
ETXERA ERAMATEN DUGU
Eibarko Merkatu Plaza - Rialto
Tel. 943 12 05 87

BOLINTXO
OKINTEGIA
GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
☎ 943 20 40 66 (Errebal, 9) ☎ 943 20 36 06 (Legarre Gain)



Alargunen Euskadi maillako batzarra egin zan Coliseoan

Apirillian **Coliseuak** "El Mago de Oz" musikala, "Ay Carmela!" antzezlana eta Ruper Ordorikaren kontzertua hartu zittuan bestiak beste. **IK4-Teknikerren instalaziño barrixak** inaugurau zittuen Azittaiñen. Urtero lez, **II. Errepublikia** gogoratu zan. **Errentaren kanpaiñia** hasi eban Ogasunak. **Deparkel alkartiaren aldeko** pintxo-potia hartu eban Untzagak eta Eibar K.E.-kuak **Garagunera** bisitan juan ziran. 44 urte eta gero, **Kareaga bitxitegixak** hillaren amaierian itxi zittuan atiak. Aste Santuko oporrak aprobetxauta, **soiñujole gaztiak** Saloura juan ziran eta **Eibarko Koro Gaztekuak** Bartzelonara. Sanjuanetako **danborradetarako entseguak** hasi ziran. **Legarren bertso kantu bazkarixa** antolatu eben. Eta **Liburuaren Naziñoarteko Eguna** ospatzeko egitarau berezixa hartu eban Juan San Martin Liburutegixak. **EH Sukarrak** zazpigarren diskua kaleratu eban.



Kareagakuak agur 44 urteko jardunari


Errepublikaren eguna ospatu zan


**RUPER ORDORIKA**
**"Ez zaigu erraza Eibarren aritzea azken urteotan"**

**DATUA**
**11.300 sinadura batu zituzten Eibarren ospitala egitearen alde eta Eusko Jaurlaritzan aurkeztu**

Larragest
API 353 zbk.
INMOBILIARIA / ASEGURUAK
F. Calbetón, 22-24
943 200 012
690 610 715

**Hillaren lehelenguan** mobilizaziño diferentiekin gogoratu zan bihargiñen eguna. Eta hillaren 8xan **merkadillua Errebalen** ipintzen hasi ziran. Gaztetxekuak **II. Udaberri Fest** antolatuta emon zetsen ongietorrixa udabarrixari. Eta jai girua zabaltzen juan zan. Bestiak beste **Santa Kurutz, San Isidro, Abontzako eta Galiziako jaixak** ospatu genduazen maiatzian. Deporrekuen agenda bete-beteta egon zan, maiatzian bat egiñ eben-eta **Argazkilaritza Maiatzian-ek eta** 48. **Euskal Jaixak. Eskolarteko antzerki** erakustaldixa be hill horretan egin zan eta premixuetarako tartia be egon zan: Anuaria diseño grafiko premixuetan sari hirukoitza jaso eban **Gorka Aizpuruak** eta **Toribio Etxebarria Sarixak** banatu zittuen Coliseuan. **Gerrako Ahotsak** webgune berezitua sortu eben eta **Errebalen erabilleren** inguruko prozesu partehartzailliari ekin zetsen. Eta **Amañako danborradetarako entseguak** hasi zittuen.



**MIREN IRIONDO**
**"Baserrian ez dago oporrik: gogor egin gutxi irabazteko"**

**DATUA**
4.000 umek hartu dute parte Astelenan martxan egon den parkean, 311 eguneko



Euskal Jaixa sorgin-dantza artian juan zan aurten, eguzkixa lagun



Transmisiñuaren inguruko mintegixa



Santa Kurutzeko jaixen giro paregabia









Txosnetako bazkarixa ekitaldi jendetsuenetakua izan zan Sanjuanetan



Berbetanekuen Mintza Eguna



Jantzixen desfilia El Corte Inglesian

Uda sasoia gerturatziarekin batera **jaixak** ugaritzen juaten dira: ekaiñeko lehelenguak **Urkikuak** izan ziran. Atzetik etorri ziran **Garagardo Jaixa, sanjuanak, sanpedruak eta Atzegikuen famelixakuen** jaixa, bestiak beste. **Eibarko Dendarixen alkartekuak** presidente barrixa aukeratu eben: Nekane Fernandez. Eta Udalak **Asier Cuevas** ultramaratoilarixari errekonozimendua egin zetsan. Bixen bittartian, **Egogaiñeko bihargiñak** protestan jardun eben euren lan baldintzak diralа-eta. Urtero lez, udako oporrak gerturatziarekin batera herriko kalietan **konponketa txikixak** egitteko aprobetxau eben eta Toribio Etxebarria eta inguruan baldosak kanbixau eta barrixak ipintzeko biharrak egin zittuen. Hórretxek eraginda **trafiko aldaketak** egon ziran hainbat egunetan. Eta ikasliak oporrak hartziarekin batera, Ipuruan **kanpoko igerilekua** zabaldu eben.



**ELIANA MODREGO**
**"KZguneak oso beharrezkoa den zerbitzua eskaintzen du"**

**DATUA**
225.000 euroko kostoa du Polonia Etxeberrian igogailua ipintzeak: 13 metroko ibilbidea





# EIBARKO KIROL SARIEN XIX. edizioa

***Datorren martitzenean, abenduak 31,*** *...eta kitto! astekariak antolatzen duen Eibarko Kirol Sarien edizio berri batek bere zita izango du Eibarko kirol munduarekin. Hemeretzigarrena izango da.* ***Coliseoan, eguerdiko 12.00etan*** *hasiko den ekitaldian, modalitate bakoitzean izendatutako kirolariek euren saria jasoko dute; modalitateei dagokienez, 27 sari banatuko dira eta, horiez gain, sustapen saria, euskarakoa eta ohiko sari berezia. Guztira, beraz, 30. Lerro hauetatik, eibartarroi ekitaldira joateko gonbitea egiteaz gain, parte hartu duten kirol talde guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Zorionak irabazleei! Eta baita gure herriko kirol taldeei ere, urte guztian egiten duten lanarengatik.*

**SARI BEREZIA**



**Asier Cuevas**

Eibarko Klub Deportiboa

**EUSKERA SARIA**

eibarko euskal jokoak
herri kirola bultzatzeko elkartea

**Eibarko Euskal Jokoak**

Herri Kirolak

**ARETO-FOBALLA**



**Ion Cejuela**

Debabarren Areto-Foballa

**ARKU TIRAKETA**



**Jessica Ots**

Arkulariak

**ATLETISMOA**



**Martin Vouilloz**

Eibarko Klub Deportiboa

**AUTOMOBILISMOA**




**J. Rodriguez / A. Arrillaga**

Escuderia Eibar

**ERRUGBIA**



**Jon Unamuno**

Eibar Rugbi Taldea

**ESKIA**



**Jone Saez**

Eibarko Klub Deportiboa

**ESKUBALOIA**



**Gaizka Bilbao**

Eibar Eskubaloia

**FOBALLA**



**Urko Jubenil maila**

Eibar Kirol Elkartea

**GIMNASIA ERRITMIKOA**



**Infantil Oinarrizkoa**

Ipurua Gimnasia Erritmikoa

**GOLFA**



**J.L. Bilbao / A. Camiño**

Eibar Golf Pitch & Putt

**HERRI KIROLAK**



**Arantza Atienza**

Poliklinika Gipuzkoa

**HIRU TXIRLO**



**Ibai Diez**

Asola Berri

# abenduak 31, martitzena, 12.00etan, COLISEOAN

**IGERIKETA**



**Marina Bedia**
Urbat-Urkotronik

**JUDOA**



**Iker Martinez**
Judo Kalamua

**KARATEA**



**Paulino Hernandez**
Urki-Amaña

**MENDIA**



**Joxean Legarda**
Eibarko Klub Deportiboa

**PILOTA**



**Iñigo Ruiz**
Eibarko Klub Deportiboa

**SASKIBALOIA**



**I. Fernandez / J. Sierra**
Katu Kale

**SILBESTRISMOA**



**Asier Fernandez**
Eibarko Txori Lagunak

**SQUASH**



**Jonatan Alustiza**
Eibarko Klub Deportiboa

**TENISA**



**Iker Entrena**
Unbe Kirolgunea

**TIRO OLINPIKOA**



**Unax Alcalde**
Club Tiro Dinbi-Danba

**TRIATLOIA**



**Pello Osoro**
Delteco Eibar Triatloi Taldea

**TXIRRINDULARITZA**



**Julen de Blas**
Debabarrena-Kirolgi

**WATERPOLOA**



**Davide Cerchi**
Urbat-Urkotronik

**WU-SHU**



**Sergio Usua**
Ttatt Gimnasioa

**XAKEA**



**Emilio Jose Freire**
Eibarko Klub Deportiboa

**SUSTAPENA**

Tekniker
ik4 research alliance

**Tekniker**
Eskubaloia

Sanjuanetako bixamona gaiñetik kendu ezinda geguazela, **Eibar foball taldia maillaz igotzeko** jaixak hasi eban hillia eta jarraixan beste jai batzuk etorri ziran: Astixako umiak ospatutako **sanfermiñak, Amañako jaixak** betetako asteburu bi, **Sankristobalgo jaixak** eta **Lambretten konzentraziñua**... Aktuaziñuekin betetako udiari aurre egitteko moduan, harrobixa barrittuta eguazen **Ustekabe fanfarrekuak** julixuan. Eta premixua jaso eben herriko kazetari bik, **Ainara Argoitiak eta Imanol Magrok Rikardo Arregi sarixetan.** Markeskuan, **Udako Euskal Unibertsitateak** antolatuta udako ikastaruetan jende morduak hartu eban parte. Susto haundixa hartu genduan, ke mordua eragiñ eban **Alfako sua** zala-eta. Eta hilliari agur esan aurretik, **III. Rallysprint automobil lasterketia** egiñ eben.



Eibar Foball Taldiak 2. A maillara igotzia lortu eban L'Hospitaleten



**IMANOL MAGRO**
**"Kazetariago bueltatu nintzen olinpiar jokoetatik"**

**DATUA**
18.000 euro eman zien Udalak herriko lau jubilatu etxeei, urtero lez bazkide kopuruaren arabera



Rallysprint-aren 3. ediziñua jokatu zan



Herriko mugarrixak gaurkotu dittue

UNBE TABERNA
× Pintxoak
× Bokatak
× Bazkariak
Balle Otaola 33 ☎: 943 70 00 81
EGUNEROKO MENUA

TXOKO
Giro alaia Gabon Zaharrean!
UNTZAGA PLAZA, 10
20600 EIBAR



Tradizio Bizia programia aurkeztu eben eskualdeko turismua bizibarritzeko


Munilla Donostiako obispua Azittaiñen



Kezkako dantzarixak Austrian

Hillaren hasieran **Kezkako dantzarixak Austrian** egon ziran, Villach-en ospatu eben Kirchtag 70. jaialdixan parte hartzen. Jose Ignazio **Munilla Donostiako gotzaiñak** gidatutako mezan, **Jon Aristondo** karmelita izendatu eben **Azittaingo** Jasokunderako **eta Estaziñoko** San Agustin elizako **parroko.** Udako oporren aurretik eta abuztura begira, **Tradizio Bizia** izenburuko programaren barruan, gusto eta interes ezbardiñeri erantzuna emoteko moduko bost esperientzia gehittu zetsazen lehenagotik eguan eskintza turistikuari. Esperientzia bakotxa gai zihetz baten inguruan antolatu eben: euskal sukaldaritza, herri kirolak, euskal pelotia, sagardaua eta alkarte gastronomikuak bertatik bertara eta oso modu berezixan ezagutzeko plan eziñ erakargarrixaguak sortuta. Herriko **zazpi kale asfaltau** zittuen abuztuan, 250.000 euro erabillitta. Eta **udan sorosle** jardun eben hainbat eibartarrek Debako hondartzan.



**NEREA ZIARAN**

**"Igeriketa gustoko izanda, egoki nabil sorosle moduan"**

**DATUA**

**17.000 euroko kostoa izango dute Legarre inguruan trenbidea bikoizteko lanek**

EUSKO LABEL
Baimendutako harategia
Euskal Okela
Carnicería autorizada
Bidebarrieta 20
Tlfno: 943 20 16 69
OBERENA HARATEGIA

**Arrateko Amaren jaixak** ospatziarekin batera ekin gentsagun ikasturte barrixari eibartarrak. **Kofradixa egunak eta Arrate izenekuen jaixak** bat egiñ eben aurten. **Bien Aparecidako jaixak** ospatu zittuen Kantabriako Etxekuak eta **La Vijanera** gonbidatu eben. **Legarrekuak, Wenzeslao Orbeakuak eta Agiñagakuak** be jaixak ospatu zittuen. Eta **4.804 ikaslek,** iaz baiño 230 ikasle gehixagok hasi zittuen klasiak. Bidiari ekin zetsan **Eibarko Kantuzaleak,** euskera hutsian kantatzeko asmuakin sortutako abesbatzak. **Egazelaiko babes ofizialeko etxiak zozketatu** zittuen iraillian. Gaztiekin adostutako **gazte-lokalen ordenantzak** aurrera egiñ eban. **The Beatles taldiaren 50 urtemuga** gogoratzeko kontzertu berezixa antolatu eben Coliseuan. Eta Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko **Jose Luis Irigoienek** erakusketa antologikua ipiñi eban ikusgai Portalean. **Errezeta elektronikua** Eibarrera aillegau jakun.



**JUAN SANCHEZ VALLEJO**
**"Zoroa baztertzeko joera du gizarteak, familiatik hasita"**

**DATUA**
14.600 lagunek ikusi dute pelikularen bat Coliseoan aurten, batezbeste 36 lagunek



Arrateko Ama Birjiñaren prozesiñua iraillaren 8xan



Berbetan programako partaide batzuk



La Vijanera etorri zan Kantabriatik







Untzagak gaiñezka egin zeban egun osoko Sagardo Egunian


Liburu Azokia barriro bueltatu da


Karmelo Urdangarin eta Gure Balioak

Ertzaintzak bost gizonezko atxilotu zittuan, egun batzuk aurretik **Apalategin hilda** agertu zan gaztiaren heriotzarekin zerikusixa zekelakuan. Etenaldixa amaittuta, **Ezkontza Azokia** hartu eban atzera be Armerixa Eskoliak eta, urtero lez, **Sagardo Egunian** 2.200 litro sagardo banatu ziran Untzagan. **Inmigraziñuari buruzko** zurrumurruak ixiltzeko **jardunaldixak** antolatu zittuen. **Eibarko LOMCE Ez** taldiak aurkezpen publikua egiñ eban. **Pobrezia Zerok** ekitaldixa egiñ eban urteroko aldarrixa gogoratzeko. **Herrira legez kanpo** laga ebela eta, alkartasuna azaltzeko agerraldixa egin zan Untzagan. **Atzegik** urteroko kanpaiñia presentau eban. Txema Cornago gogoratu eben aurten **Karmelo Urdangariñek** jaso daben **Gure Balioak** sarixetan. **Musikaldiak, Liburu eta Disko Azokiak eta Jardunaldi Mikologikuak** osatu eben, bestiak beste, hilleko agendia.


**AINHOA BAGLIETTO**
**“Espetxe politikak ezin ditu giza eskubideak urratu”**

**DATUA**
Kontsumo baxuko 43 farola berri ipini dituzte bariantearen pasealekutik Azitainerako tartean

GAUR ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIO ETA KONPONKETA ELEKTRIKOAK
ATEZAIN AUTOMATIKOAK ETA BIDEO-ATEZAINAK
Zuloagatarren 9, behea
Telefonoa 943 20 62 40
carmen@egaur.com
Faxa 943 05 69 23

Laguntza Teknikorako Zerbitzu Ofiziala
EIBARSAT
Elektrodomestiko txikien mikrouhinen konponketa, musika kateak, sukaldeko menajea, elektrodomestiko txikien piezak, eta abar…
IFAR KALE 8
Tel. eta Faxa. 943 20 67 17
20600 EIBAR

**Domusantu Egunian** kanposantura bisitan juanda hasi eben askok azarua. **Mendebaldeko Sahara** izan zan aurtengo Liburutegiak **Topaleku kanpaiñako** ardatza eta, horrekin batera, **Norvegiari** eskindutako jardunaldi berezixak hartu zittuan Portaleak. **Indalezio Ojanguren** argazkilaritza **sarixak** banatu eta erakusketia zabaldu eben. Eibarko 22 **odolemotaillieri omenaldixa** egin zetsen Gipuzkoako alkartiak urtero antolatzen daben jaixan. **Gaztañerre** ederto ospatu eben AEK-ko kalejirara juandako guztiak. **Itunpeko irakaskuntzakuak** konbenixuarengaittik protestan jardun eben. Banartek **"Guernica 1913"** antzezlana presentau eban Coliseuan. **Udalak Espaiñia maillako argazkilaritza sarixa** jaso eban. Sanandresak aurretik, **Queen taldia gogoratu** eben Astelena frontoian. **Asier Errasti ikus-entzunezkuen emanaldixak** eta Javier Agirresarobe laburmetraia sarixak eskindu zittuan Plano Cortok.



Bakillaua protagonista izan zan beste behin Sanandresetan



**ANDONI EGAÑA**
**"Familiak pisu handia du euskararen transmisioan"**

**DATUA**
**134.000 euro jasoko ditu Udalak Diputaziotik inbertsioetarako; aurten 1,2 milioi jaso ditu guztira**




Gernika 1913 antzezlana aurkezten



Gabonetako argixak azkar piztu ziran

Super BM

*Super BM IFA taldea, zure eguneroko erosketa*

GRUPO IFA

Julian Etxeberria, 14-16 Tel. 943 70 15 90

EGUREN & ASOCIADOS
ABOGADOS

JOSE VICENTE PEROSANZ
Mª LUISA SOROA
MARTA VALERA
IRATXE URIBEZUBIA

TEL. 943 204 194
FAXA. 943 820 006

Urtzaile, 1 EIBAR egurenyasociados@gmail.com



...eta kitto! rebistia martxan ipiñi zala 25 urte bete dira aurten

**Sostoa abesbatzak 30 urte** beteko dittuala-eta, jende gaztia erakartzeko kanpaiñiari ekin zetsan. Abendua hasi baiño egun batzuk lehenago ixotu zittuen **Gabonetako argixak.** Hotzari aurre eginda, herriko musikarixak **Santa Zezilia** ospatu eben. Museuak, barriz, **Santa Barbara** ospatzeko jardunaldixa antolatu eban. Eibartarrak atzera be **Durangoko Azokan** parte hartzen egon ziran, liburu eta disko barrixekin. **Errebalgo prozesu parte-hartzailliaren** ondorixuen barri emotiarekin batera, **Plan Generalerako prozesuari** ekin zetsen udaletxian. **Beldur Barik** lehiaketako ikus-entzunezkuekin indarkerixa matxistia salatu eben. Eta Santa Luziaren harira, Eibarko **ONCE-k Txopitea eta Pakea** errekonozimendua jaso eban. Abenduaren 2xan askatu eben **Mikel Zarrabe,** 24 urteko kartzela zigor osua bete eta gero.



Karmelitetako organuak 50 urte



Mateo Guilaberti omenaldixa



**ARANTXA URRETABIZKAIA**

**“Zahartzeko modu berri bat asmatu beharrean gaude”**

**DATUA**

469 herritar izan dira auzorik auzo egindako zazpi bileretan, guztira 271 proposamen egiteko

EGOLAN CB

Zure etxe-barruaren onerako...

Tfnoa. 943 20 22 39
Mobila. 617 16 33 82
egolan.eibar@gmail.com

AHOLKULARITZA eta GESTIOA
EGOLAN
Julian Etxeberria 7, 7.-C




Ahotsak ahozko ondarea gorde eta zabaltzeko proiektuak 10 urtiak ospatu zittuan Elgetako Espaloian.

- Urtiaren hasieran **Argia Sariak 2013** banatu zittuen Usurbillen eta Internet atalekua Eibarrera ekarri eben **Dantzan.com-eko** Oier Araolazak eta Eire Vilak; atal berian Bertsoa.com-eko Jexux Mari Irazu eta Eneritz Urkola be sarittu zittuen.

- **Eibarko euskaltegi bixak** (Udal Euskaltegiak eta AEK-k) **berba lehiaketia** egiñ eben Udalarekin alkarlanian. Iaz Eibar definitzeko berbarik politten aukeratu bihar izan eben eta aurten, barriz, zatarrena. Izaskun Bustinduik proposatutako *"narrasa"* berbiak eruan eban sarixa.

- **Koko-jantzi taillarra** egiñ eben **Gurasuak Berbetan-ekuak**, grasuak euskeria praktikatzeko asmuarekin …eta kitto! Euskara Elkarteak sortutako mintzapraktika taldiak, Aratostietarako hillebete falta zanian.

- Eskualdeko historixia ezagutzeko mendi irteeria antolatu eben **Korrika Kulturalaren** barruan, Eibarko Klub Deportiboko mendi taldiak lagunduta. Deba-Mutriku-Deba ibilbide gidatua egiñ eben. Beste batzuk be egin ziran Korrika Kulturalaren barruan: Kuba eta Venezuelari buruzko hitzaldixa emon eben Euskadi-Kuba alkartekuak, Antzerki Jardunaldixen barruan ***"Lingua Nabajorum"*** antzezlana eskindu eben eta Kultuk tabernako bertso saiua hartu eban Miren Amuriza eta Beñat Ugartetxea bertsolarixekin. **Korrika bixak**, txikixena eta 18. Korrika egun berian, martxuaren 20xan egin ziran.


UEUk urte osorako ikastaruak antolatu dittu.

- **Udako Euskal Unibersidadiak**, udako ikastaro eskintza ez eze, udaberri eta udazkenerako ikastaro sorta zabala antolatu dittu aurten be. Horrekin batera, **"Ni ere UEU" kanpaiñia** abiarazi eben.


Gurasuak Berbetaneko koko-jantzixak.


Marimaixtra personajia agertu zan.

Saratsuegi, 5
943-257605
APARKATZEKO
arazorik gabe
Restaurante La Jara

Menu bereziak
ospakizun eta urtebetetze merendoletarako
Oilasko erre osoa, patata frijituekin (10 €)
Eguneko menua (astelehenetik ostiralera)
Plater konbinatuak
Kazuelitak
Razioak

ERREGE EGUNEKO MENUA
(aldez aurretik eskatuta)
– Askotariko iberikoak
– Etxeko kroketak
– Arrain zopa
– Azpizuna patata eta pikiloekin
– Postrea
– Cava, kafea, Errioxa eta Rueda ardoak
– Postrea
38 € + BEZ






*Euskaraz Bizi Nahi Dugu aldarrikatzeko euskalgintzakuak Untzagara etara eben eskintza, azokia eginda.*



*Argia Sarixetan internetekua Eibarrera etorri zan.*

- Martxuan Elgetako Espaloia Kafe Antzokixan **Ahotsak** ahozko ondarea gorde eta zabaltzeko proiektuak **10. urteurrena** ospatu eban.

- Maiatzian **Mintzalagunak** Getarixan egon ziran, Balenciaga Museuan bisitan.

- Maiatzaren 7xan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta **"Euskararen transmisioari buruzko III. Mintegia"** hartu eban Portaleak.

- Iraillian **Euskeraz Bizi Nahi Dut** azokia egin zan Untzaga plazan, euskalgintzako taldien eskintza guztia plazara etarata.

- Ikasturte honetan **Harixa Emoten** irakurketa tertulixak **Liburutegira** saltua emon dau, hango irakurketa klubarekin bat eginda.

- **Berbalaguna mintzapraktikarako proiektua** ezagutzera emoteko kanpaiña berezixa abiatu eben ikasturte barrixan.

- **"Marimaistra"** euskeriarekin dittugun zalantzak argitzen laguntzeko agertu jakun.

- **Ika Mizka zirkuituak** oinguan geldiunia egin dau Eibarren.

- **Illunabarrian** ...eta kitto!-ren proiektuaren barruan antolatutako Andoni Egañaren hitzaldixak jendetza erakarri eban alkartian bertan egindako saiuan.

- **Euskararen Egunian 1.600 lagunek** emon eben aurpegixa euskeriaren alde.

- Eta abenduaren 5ian **...eta kitto! aldizkarixa** lehelengo kaleratu zanetik **25 urte** bete dirala ospatzeko ekitaldi berezixa hartu eban udaletxiak.



*Maiatzian transmisiñuari buruzko III. Mintegixa egin zan Portalean.*

Baimendutako Harategia
Gure Kalitatea
Giokela
MUGIKA
HARATEGIA
Urkizu, 18
943120194
URTE BERRI ON!



*EHUko Eibarko kanpusian klasiak emoten dittuan Aitor Urresti Fracking Ez mugimenduko kidia be bada eta oin dala gitxi, Udalak Eibar fracking bariko udalerri izendatzeko moziñua onartu baiño pixka bat lehenago Portalean horri buruzko hitzaldixa emoten egon zan. Bestiak beste, Udalbatzak hartutako erabagixaren garrantzixaz jardun dogu berbetan.*

AITOR URRESTI *-Fracking Ez mugimendukua-*

# “Moziñua haiñ azkar onartzia sorpresa positibua izan da”

***- Udalak aurreko hillaren amaieran Eibar fracking gabeko udalerri izatia erabagi eban, horretarako moziñua onartuta. Zelan hartu zenduen barrixa?***

Bizkaiko plataformakuendako nahiko sorpresa positibua izan zan, oso azkar eta, gaiñera, ahobatez onartu dabelako moziñua, beste toki batzuetan askoz be denpora gehixago emon dabe holako erabagixa hartzeko.

***- Oin dala gitxi gaixaren gaiñian berbetan jardun zenduan Portalean, baiña askori oindiok be arrarua egingo jakue berbia. Zer da fracking-a?***

Gas ez ohikuak ustiatzeko teknika bat da. Ez ohikua esaten dogu, gasak poro gitxiago daken eta estuago daguazen harrixetan dagualako, gure kasuan arbeletan. Aittatutako hórren eragiñez, gasa ezin leike mugidu eta, horregaittik, gasa etaratzeko haustura hidraulikua erabiltzen da. Hau da, ura presiño haundixarekin eta beste gehigarri batzuk nahastauta sartzen dabe gasa etara ahal izateko.

***- Eta teknika horrek zelako eragiña euki leike?***

Ondorixuak anitzak dira. Gure inguruan oindiok ez dabe halakorik erabilli, baiña AEB-tan honezkero hainbat kalte ikusten eta ikertzen hasitta dagoz: bestiak beste lur azpiko zein gaiñeko uraren kontaminaziñua, urari gehitzen jakozen gehigarri kimikuak oso kutsakorrak diralako, airia bera be gehixago kontaminatzen da, negutegi efektua eragitten daben CO3-a baiño 20 aldiz kaltegarrixagua dan metano mordua askatzen dalako. Horrekin batera, gasa lortzeko operaziño asko egin bihar dira: ohiko gasa lortzeko 10/20 putzu egin bihar badira, ez ohiko kasuetan gas bera lortzeko 100 bat putzu egin bihar dira eta, beraz, lurzoruaren okupaziñua askoz be haundixagua izango da. Oindiok ikertzen dabiz, baiña badirudi fracking-a egin daben tokixetan lurrikarak gora egin dabela. Zornotzatik hasi eta Eibartik pasauta, badirudi fracking-erako lau eskaera egin dittuela, oindiok baimenik emon ez daben arren.

***- Ez ohiko gasa diñozunian, zelako gasaz diharduzu?***

Gas naturala da, ez ohikua esaten detsagu ustiatzeko moduagaittik, bestela etaratzen dana gas natural arrunta da.

***- Zeuek unibersidadian energixa barriztagarrixen gaiñeko ikasketak eskintzen dittuzue. Kaso egitten detsagu fracking eta bestelako kontuekin naturak emoten dittuan abisueri?***

**“Gobernuak zentzurik ez daken erabagixak hartzen segitzen dabe”**

Berez, biharko gendukena baiño askoz be kaso gitxiago egitten detsagu. Gaiñera, krisixa dala eta ez dala, energixa barriztagarrixen alde egitteko momentu egokixa ointxe ez dala, mezu hori zabaldu da. Baiña kontuan euki bihar dogu oingo krisixa ez dala bakarrik ekonomikua, energetikua eta ekologikua be bada. Adibide bat ipintziarren, elektrizidadiaren preziuak behera egitten dau barriztagarrixak tartian sartzen diranian. Oin dala egun batzuk euki dittugun ziklogenesixak, adibidez, elektrizidadiaren preziua 80 eurotik 5 eurora bajatzia eragin dau, haiziarekin eolikuak martxa betian ibilli diralako. Ostera, horren alde egin barik energixa atzerritik ekartzeko-eta askoz be gehixago pagatzen segitzen dogu.

***- Eta zergaittik ez dogu egitten barriztagarrixen alde?***

Ba oindiok be asunto guztia gobernuen esku segitzen dabelako eta hórrek oso lotura estuak dittue Repsol eta bestelako enpresekin. Horregaittik, zentzurik ez daken erabagixak hartzen segitzen dabe, hartu biharko leukienak hartu biharrian.




**AZKEN EGUNAK**

Abenduaren
30ean eta 31n
DOAN!!

Urtarrilaren
1etik 6ra arte
1,50€

**ORDUTEGIA**
*11:30-14:30*
*16:30-20:30*

**URTARRILEAN**
2, 3, 4
11,18 eta 25ean

**OTSAILEAN**
1, 8, 15 eta 22an

**MARTXOAN**
8, 15, 22 eta 29an

**APIRILEAN**
5 eta 12an

**ORDUTEGIA**
*11:00-14:00*
*17:00-20:30*




EIBAR
CENTRO COMERCIAL ABIERTO
MERKATARITZA GUNE IREKIA

**dirulaguntzaileak**

EIBARKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN
ETA LEHIAKORTASUN SAILA

# Urbateko igerilariak bigarren Gipuzkoako kluben arteko Kopan

**Edu Lopez eta Deyane Hernandez entrenatzaileen aginduetara, Urbateko 22 igerilarik** hartu zuten parte Zarautzen jokatu zen lurraldeko taldekako txapelketarik garrantzitsuenean. Abenduaren 14-15eko asteburu gogor horretan, eibartarrek azken uneraino borrokatu zuten txapela Eibarrera ekartzeko eta, bai nesketan eta bai mutiletan, bigarren postuan amaitu zuten, Usabalgo Tolosaldearen eta Bidasoaren atzetik, hurrenez hurren. Horrek ekarri zuen sailkapen bateratuan ere bigarrenak izatea, inoiz lortutako posturik onena. Marken artean, Ander Romaratek mundukoa egin zuen 200 bizkarreko proban, zalantzan badago ere denbora horri baliotasuna emango dioten. Bestalde, aurreko asteburuan igeriketako Gabon Kopa jokatu zen Ipuruan. Urbatek antolatzen duen proba horretan benjamin eta alebin mailako igerilariek hartu zuten parte.



*Talde indartsua osatzen dute gaur egun Urbateko igerilariek.*



*Hilero irteera bat antolatuko du Deporreko eski batzordeak.*

# Hiru irteera Deporreko eski batzordearekin

**Klub Deportiboko eski batzordeak hiru irteera antolatuko ditu denboraldi honetan:** urtarrilaren 18-19ko asteburuan egingo da lehena, otsaileko 8-9koan bigarrena eta martxoko 8-9koan azkena. Irteerak LHko 5. eta 6. mailako eta DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat dira eta, baita, 18 urtetik gorakoentzat. Iraupen eskia egitera Somportera joango diren moduan, Astunen alpinoa egingo dute. Helduentzako prezioa 70 eurokoa izango da (bidaia eta ostatua pentsio erdian sartzen dira hor) eta haurrek 75 euro ordaindu beharko dute (bidaia, ostatua pentsio erdian, forfaita, monitorea eta alokairua). Izena emateko, Deporretik pasatu beharko da martitzen edo eguenetan, 19.30etatik 20.30etara (943-201904 edo eski@deporeibar.com).

# Urrezko domina Eibarko Udalari judoaren alde egindako lanarengatik

**Miguel de los Toyos alkateak Espainiako Judo Federazioak emandako sari hori jaso zuen zapatuan Madrilen.** Espainiako Olinpiar Komitearen instalazioetan egin zen ekitaldia eta berarekin izan ziren Kalamua Klubeko ordezkariak, sari horretarako Udalaren izena proposatu zutenak, Manu Agirre klubeko presidentearen eskutik.




*Miguel de los Toyos eta Manu Agirre.*



# Gazteentzako jardunaldiak eskubaloian

**Eibar Eskubaloiak Gabonetako oporraldi honetan kaptazio eta teknifikazio jardunaldiak** antolatu ditu lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailakoentzat. Bertara edozein joan daiteke, klubeko jokalariak izan ala ez; izan ere, oraindik jokalari ez izan eta eskubaloian hasi nahi dutenentzako baita deialdia. Abenduaren 22ko eta 26ko jardunaldien ondoren, urtarrilaren 2an eta 3an izango dira azkenak, honako ordutegiekin: 2an, 6. mailako mutilak (10.00etatik 11.00etara), 5. mailakoak (11.00-etatik 12.00etara) eta bi mailetako neskak (12.00etatik 13.00era); hurrengo egunean, neskak (10-11), 5. mailako mutilak (11-12) eta 6. mailakoak (12-13).

# laztanak emoten...

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.**



Zorionak, MANEX, barixakuan hiru urte bete zenduazen-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MIKEL, txapeldun, barixakuan lau urte potolo egin zenduazen-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, ARETX, zure bederatzigarren urtebetetzian. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak,MALEN gaur bi urte egitten dozuz-eta!!! Segi oiñ arte bezain alai!!! Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JULE Olabegojeaskoetxea, bixar hiru urte egingo dozuz-eta. Aitxitxa-amamen partez.



Zorionak, ANE Plazaola, urtarrillaren 5ian urtebetetxua egingo dozu-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Olatz ahiztiaren partez.



Zorionak, IKER (hillaren 11n 13 urte) eta IÑIGO Jauregibarria. Ondo ospatu urtebetetzia. Muxu haundi bana etxeko guztien partez.

## hildakoak

- **Luis Fernandez Cid.** 76 urte. 2013-XII-19.
- **Francisca Morillo Ordax.** 83 urte. 2013-XII-21.
- **Margarita Larrañaga Irureta.** 86 urte. 2013-XII-21.
- **Olegario Gonzalez Larrea.** 73 urte. 2013-XII-21.
- **Antonio Bergara Tejedor.** 66 urte. 2013-XII-22.
- **Pakita Aja Fernandez.** 81 urte. 2013-XII-23.
- **Mª Luisa Beitia Egia.** 96 urte. 2013-XII-24.
- **Josefa Lapazaran Etxebarria.** 84 urte. 2013-XII-25.
- **Igor De los Toyos Ibarrola.** 45 urte. 2013-XII-26.
- **Mª Carmen Ortuoste Iraolagoitia.** 74 urte. 2013-XII-26.

## Aurten laga gintuzten, beste askoren artean



**Mbaye Ndiaye**
*Otsailak 7*



**Felix Bergara**
*Otsailak 22*



**Emilio Azurmendi**
*Martxoak 13*



**Ziriako O. Zarate**
*Martxoak 14*



**Antonio Sarasketa**
*Ekainak 21*



**Teodora Aranzabal**
*Abuztuak 3*



**Joxi Hernandez**
*Urriak 5*



**Milagros Jauregi**
*Abenduak 15*

# MARTITZENA 31

## GELTOKI MARKET
**10.30-15.30.** Eibar Vintage Market. Estaziño kalean.

## EIBARKO KIROL SARIAK
**12.00.** Kirolkitto! Eibarko Kirol Sarien XIX. edizioa. Coliseo anztokian.

## MANIFESTAZIOA
**19.00.** Tantaz Tanta manifestazioa. Untzagatik hasita.

# EGUAZTENA 1

## URKORA IGOERA
**09.00.** Urkora igotzeko Deporretik irteera. 10.00etatik aurrera salda doan Ixuan.

# EGUENA 2

## ZINEA
**17.30.** *"El origen de los Guardianes"*. El Corte Inglesean.

## KALEETAN KANTUZ
**19.30.** Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

# BARIXAKUA 3

## UMEENDAKO TAILERRA
**17.30.** Hiru Erregeen maskara tailerra. El Corte Inglesean.

## DJ-AK
**19.00.** DJ saioa. Eibart artisau azokan.

# ZAPATUA 4

## DJ-AK
**19.00.** DJ saioa. Eibart artisau azokan.

# DOMEKA 5

## ERREGE KABALGATA
**16.30.** Ipurua dantza garaikide taldearen, Ipurua Gimnasia Erritmika taldearen eta Eibarko Balletaren dantza erakustaldia. Ipurua kiroldegian.
**19.00.** Errege kabalgata, Untzagatik hasita.
**20.00.** Umeei harrera, udaletxeko patioan.

## EIBART
**19.00.** DJ saioa. Eibart artisau azokan.

# MARTITZENA 7

## HARIXA EMOTEN
**19.00.** Harixa Emoten literatura-tertulia: Jokin Muñozen "Antzararen bidea". Juan San Martin liburutegian.

# EGUAZTENA 8

## IKASTEN
**11.00.** Kafe-tertulia: *"Los mayores y sus problemas"*, Fernando Serranoren eskutik. Untzaga jubilatu etxean.

## EIBARKO KANTUZALEAK
**19.00.** Eibarko Kantuzaleak-en entsegua. San Andres elizan.

# EGUENA 9

## KALEETAN KANTUZ
**19.30.** Entsegua. San Andres elizako lokaletan.

# zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**30ean: 20.30**

## "La piedra de la paciencia"
*Zuzendaria:* **Atiq Rahimi**




**(2 ARETOAN)**
**30ean: 20.30**

## "Blue Jasmine"
*Zuzendaria:* **Woody Allen**




**(ANTZOKIAN)**
**30ean: 20.30**

## "Caminando entre..." 3D
*Zuzendaria:* **Barry Cook**




# HOROSKOPOA

**ARIES**
Modu ezin hobean amaituko duzu 2013a eta hobeto hasiko duzu 2014a. Udaberri ederra izango da zuretzat, izugarria!

**TAURUS**
Gabonak oso zoriontsuak ez badira izan ere, 2014. urtea oparoa izango da zuretzat. Arlo ekonomikoan eta maitasun kontuetan.

**GEMINI**
Olentzerok ez badizu ezer ekarri, zerbaitengatik izango da. Ea datorren urtean hobeto portatzen zaren. Adi ibili!

**CANCER**
Aldaketa handiak urte berrian. Lasai hasiko duzu urtea; baina, aurrera joan ahala, egoerak buelta emango du guztiz.

**LEO**
Betikoa da: betiko proposamenak urte berriari begira. Horietako zenbat bete dituzu? Hobe ahoa itxita badaukazu.

**VIRGO**
Bizitza zeharo aldatuko dizun egoera biziko duzu 2014. urtean. Garrantzi handiko erabakia hartu beharko duzu.

**LIBRA**
Ez duzu ahaztuko 2013a. Hainbeste gauza gertatu zaizkizu, hain politak denak! Ahaleginak egin horrela jarraitzeko.

**SCORPIUS**
Olentzero joan da; baina, trankil, opari politagoak jasoko dituzu egunerokoan datorren urtean. Astroak zure alde daude.

**SAGITTARIUS**
Ez duzu tristurarako momenturik izango 2014an. Irtetzekotan, pozez irtengo zaizkizu malkoak. Zortekoa zu, benetan!

**CAPRICORNIUS**
2014. urtea dagoeneko... zeinen azkar pasatzen den denbora! Bizitza ahalik eta hobetoen aprobetxatu. Saiatu gogor!

**AQUARIUS**
Urte berriarekin gauzak ez dira gehiegi aldatuko zure bizitzan. Denak berdin jarraitzeak lasaitasuna emango dizu.

**PISCIS**
Urte bidaiaria izango da zuretzat 2014a. Inoiz imajinatu ez duzun lekuetan egongo zara eta une bereziak igaroko dituzu.

## erakusketak

✔ **Abenduaren 31ra arte**

***ENRIQUE LORENZOREN*** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

***JOAN BUXO-REN*** argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

***ARGAZKILARITZA IKASTAROAN*** parte hartu dutenen lanak. *Klub Deportiboan.*

✔ **Urtarrilaren 5era arte**

***EIBARKO KLUB DEPORTIBOKO ARGAZKI TALDEAREN*** erakusketa. *Portalean.*

✔ **Urtarrilaren 6ra arte**

***LA SALLEKO IKASLEEN*** punto eta gantxilozko eskulanak eta jaiotzak. *Untzaga jubilau etxean.*

✔ **Urtarrilaren 12ra arte**

***MARIA ROMERO LASPIURREN*** margo erakusketa. *Portalean.*

## lehiaketak

✔ **Aratosteak Eibarren kartel lehiaketa**

Lanak aurkeztea eta informazioa: ***urtarrilaren 22ra arte***, Pegoran.

## farmaziak

✔ **astelehena 30**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✔ **martitzena 31**
EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✔ **eguaztena 1**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✔ **eguena 2**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✔ **barixakua 3**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✔ **zapatua 4**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✔ **domeka 5**
EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)

✔ **astelehena 6**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

✔ **martitzena 7**
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

✔ **eguaztena 8**
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

✔ **eguena 9**
EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✔ **barixakua 10**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

**2014 urte osorako**
GAUEZ
**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 7 | 9 | 4 | 2 | 5 | 8 | 3 | 1 |
| 8 | 1 | 4 | 3 | 9 | 7 | 5 | 2 | 6 |
| 3 | 2 | 5 | 1 | 8 | 6 | 9 | 4 | 7 |
| 4 | 5 | 3 | 6 | 1 | 2 | 7 | 9 | 8 |
| 2 | 9 | 8 | 7 | 5 | 3 | 1 | 6 | 4 |
| 7 | 6 | 1 | 8 | 4 | 9 | 3 | 5 | 2 |
| 9 | 3 | 6 | 2 | 7 | 8 | 4 | 1 | 5 |
| 5 | 4 | 7 | 9 | 6 | 1 | 2 | 8 | 3 |
| 1 | 8 | 2 | 5 | 3 | 4 | 6 | 7 | 9 |

## SUDOKUA

URTEA AMAITZEKO
BAT IZAN BEHARREAN
**BI SUDOKU**

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 5 | | 3 | | 1 | | |
| | 1 | | 8 | | | | 9 | |
| | | | | | 7 | | 5 | 2 |
| | | | 6 | | 9 | | 3 | 5 |
| | | | | | | | | |
| 7 | 8 | | 5 | | 3 | | | |
| 4 | 2 | | 9 | | | | | |
| | 5 | | | | 8 | | 2 | |
| | | 8 | | 7 | | 6 | | |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | | | 7 | | 2 | | | 6 |
| | 6 | | | | | | 5 | |
| | | 7 | | | | 4 | | |
| | | 3 | 2 | | 4 | 6 | | |
| 7 | | | 5 | | 1 | | | 4 |
| | | 1 | 9 | | 6 | 8 | | |
| | | 4 | | | | 7 | | |
| | 5 | | | | | | 9 | |
| 1 | | | 8 | | 9 | | | 3 |

## telefono jakingarriak

SOS deiak........................*112*
Pegora............................*010*
Udaletxea..........*943 70 84 00*
Portalea.............*943 70 84 39*
Udaltzaingoa......*943 20 15 25*
Mankomunitatea *943 70 07 99*
Debegesa ..........*943 82 01 10*
KIUB .................*943 20 38 43*
Epaitegia ...........*943 03 34 00*
Iberdrola ...........*901 20 20 20*
Naturgas............*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak ..*943 46 46 22*
Gurutze Gorria...*943 22 22 22*
Mendaro osp.......*943 03 28 00*
Anbulategia .......*943 03 25 00*
Torrekua ...........*943 03 26 50*
Errepideak.........*902 11 20 88*
Ertzaintza ..........*943 53 17 00*
Eusko Tren.........*902 54 32 10*
Pesa..................*902 10 12 10*
Taxiak...............*943 20 30 71*
........................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon.....*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen ..*650 26 59 63*

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara orduro. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara orduro. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara orduro, 15.00, 15.30etatik 20.30etara orduro eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara orduro, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi orduro, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara orduro. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara orduro. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara orduro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara orduro.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara orduro eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30-etara orduro eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR**: Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara orduro eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara orduro eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara orduro, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunero: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunero: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunero: 08.13etatik 22.13etara orduro. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunero: 07.47etatik 20,47etara orduro. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

**EIBAR-BILBO.** Egunero: 08.13etatik 22.13-etara orduro, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunero: 06.57etatik 20.57etara orduro, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Barrena kalean. Erdijantzita eta oso merke. Tel. 669-690391.

### 1.2. Errentan

– Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Presa dut. Hilean 450-500 euro ordainduko nuke. Tel. 632-569245 eta 673-271449.
– Pisua errentan hartuko nuke Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.
– Pisua konpartituko nuke Eibarren. 250 euro ordainduko nituzke hilean. Tel. 660-833346.
– Pisua alokagai Barakaldo kalean. Berriztua. 5. pisuan. Tel. 653-733457.
– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 682-688813.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Mercedes Benz E-320 CDI autoa salgai. 224 cv. 117.000 km. 2007. urtekoa. Egoera onean. Tel. 630-975501.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

– Lokala alokagai Otaola Etorbidean, kuadrilendako egokia. 20 m². Tel. 681-303507. Oier.
– Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
– Garaje itxia alokagai Txomon. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
– Taberna alokagai Ipuruan. Tel. 651-007411 eta 658-595764.
– Garajea alokagai Ipuruako San Pion. Sarbide erraza. Tel. 669-931925.
– Lokala partekatuko nuke Isasi kalean. 180 euro. Tel. 620-608065.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu,15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 638-338816.
– Mutila eskaintzen da eraikuntzan lan egiteko eta garbiketetan jarduteko. Tel. 632-192408.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo gaixoak zaintzeko, ospitalean zein etxean. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 662-252150.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutegitan. Tel. 631-488692.
– Gizona eskaintzen da baserriak zaintzeko eta gidari eta sukaldari moduan jarduteko. Tel. 688-302653.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 633-229985.
– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 636-247429.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 664-009684.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Externa. Tel. 662-012834.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 634-005760 eta 603-221649.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanetarako. Tel. 681-374525.
– Emakumea eskaintzen da garbiketak egiteko: etxeak, bulegoak, txokoak... Tel. 600-332954.
– Emakume euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Tel. 606-502567.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. 8 urteko esperientzia. Externa. Tel. 638-230954.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita jaiegunetan ere. Tel. 690-199860.
– Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 617-844142.
– Neska euskalduna eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko. Tel. 617-571210.

### 4.2. Langile bila

– Sukaldari laguntzailea behar da Eibarko jatetxe batean. Esperientziarekin. Bidali curriculum-a 46 postakutxatilara.
– Sukaldaria eta kamarereoa behar dira Eibarko taberna batean. Bidali curriculum-a davidtubolab@gmail.com helbidera.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Hiru plazako sofa salgai. 2,00x0,85 metro. Salmoi kolorekoa, bi urte erabilita. 100 euro. Tel. 660-805301. Miriam.
– Somierra salgai. 1,35 metrokoa, hankekin, gehi gaueko mahaitxo bi. Wengue kolorekoa, urtebete erabilita. 80 euro. Tel. 660-805301. Miriam.
– Snow taula salgai. Burton Seren, eginberriko hertzekin. 1,68 m. Fijazioak opari. 140 euro. Tel. 679-867543.
– Hiru plazadun sofa salgai. Beigea, chesloi-arekin eta etzangarria. Oso merke. Tel. 943-043008.
– Vaporetto Polti salgai. 230w potentziakoa, 2.250w galdara-potentzia. Tel. 943-202042.
– VRC Conor Shimano bizikleta salgai. 20 abiadura. Ia berria. Tel. 943-200680 eta 634-425792.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

– Eguzkitako betaurrekoak galdu nituen abenduaren 22an Zuloagatarren eta T. Etxebarria inguruan. Tel. 658-719676.

# UNIVERSITY *of* CAMBRIDGE
## ESOL Examinations
**Authorised Centre**

*CAMBRIDGE ESOL EXAMINATIONS CENTRE ES438*

**ABENDUKO DEIALDIA**
**AZTERKETAK EIBARREN eta DURANGON**

**MATRIKULAK**
**Urtarrilaren 7tik 16ra**

## AZTERKETA DATA

| | | |
|---|---|---|
| ***FCE*** | *(idatzia eta ahozkoa)* ........................................ | LARUNBATA **Martxoak 8** |
| ***CAE*** | *(idatzia)* ASTEAZKENA **Martxoak 5** ................*(ahozkoa)* | LARUNBATA **Martxoak 8** |
| ***CPE*** | *(idatzia eta ahozkoa)* ........................................ | LARUNBATA **Martxoak 8** |

## INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

| | | |
|---|---|---|
| ARRASATE: | Parlance | 943 77 06 83 |
| | Mondragon Lingua | 943 71 20 55 |
| BERGARA: | Espolon School of English | 943 76 03 53 |
| EIBAR: | Anglo-American | 943 20 64 57 |
| | Link Idiomas | 943 20 39 59 |
| ERMUA: | Akerlei | 943 17 66 32 |
| ELGOIBAR: | Kensington School of English | 943 74 02 36 |
| | Key Academia de Inglés | 943 74 30 44 |
| OÑATI: | Mondragon Lingua | 943 71 60 00 |
| ONDARROA: | Howdy | 96 683 23 79 |
| DEBA: | Akabi | 943 19 16 79 |
| | North Street English | 943 19 25 00 |
| DURANGO: | San Jose Maristak | 94 681 00 58 |
| MENDARO: | Akabi | 943 75 50 55 |
| MARKINA: | Chatterbox | 94 616 96 39 |
| ELORRIO: | Ontrack Hizkuntza | 94 658 46 73 |
| BERRIZ: | Speak up | 94 622 52 94 |
| ZUMAIA: | Golden Gate | 943 86 50 20 |
| MUTRIKU: | Gogoz | 943 60 43 58 |

RPS: 124/10

**943 366 377** www.dentalaldaz.com

**aldaz**
hortz klinika · clínica dental
**San Bartolome, 22 (Elgoibar)**
Ola kalea, 10 (Lasarte-Oria)

*"Aldaz Hortz Klinikak eta bertoko profesional-taldeak*
**GABON ZORIONTSUAK**
*opa dizkizue"*



**INPLANTEA + HORTZA**
**egun batean**

**Arazoak hortz hagin ordezkoarekin edo hortz bat edo besteren faltarekin?**

**SOLUZIO FINKOA:**
hortz bat edo gehiago jartzea metal-zeramikan
**SOLUZIO FINKOA:**
hortz guztiak metal-zeramikan jartzea 6 inplanterekin
**SOLUZIO MUGIKORRA:**
ordezko hortz hagin osoa erretxinan jartzea 2 inplanterekin gutxienez

***2014. urterako prestatzen dihardugu.***
*Beti ere gure pazienteen ongizateaz arduraturik, hortzetako osasuna inork alde batera utzi ez dezan ahalegintzen gara. Hornitzaileekin dugun harreman zuzenari esker, tratamendu guztietan kalitatea/prezioa doitzen ditugu, datorren urtea guztiontzat errazagoa izan dadin gure aportazioa eginez. Gure paziente guztiei gugan jarritako konfidantza eskertu nahi diegu.*
***2014 zoriontsua.***



**INPLANTEA**
**295 EUROTIK AURRERA**

*Kontsultaiguzu zure kasua*

bista eder
clinica dental - hortz klinika

# Asko dira
## gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak

*Urte Berri On!*



innovadental clínicas

**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko arreta jaso dezazun



**Createch Medical-en**
etorkizuna gerturatzen dizugu,
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako
gure enpresa berritzailearekin



R.P.S. 53/13

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN

bista eder
clinica dental - hortz klinika

Bista Eder, 19 - Bajo
20600 **Eibar**

Tel: **943 70 00 82**
mail: bistaeder@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN

innovadental [Azpeitia clinica dental - hortz klinika]

José de Artetxe, 5
20730 **Azpeitia**

Tel: **943 02 59 55**
mail: innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com

www.innovadentalclinicas.com